



Magia ikuskizuna kalean.- Udako kultur egitaraua aurkeztu zuen udalak ostiralean eta iluntzean egin zen Okendon honen baitako lehenengo ikuskizuna. Sun Magoak haur zein helduak aho zabalik utzi zituen bere trukoeekin. Asko izan ziren magoa ikustera gerturatu ziren herritarrak eguraldia lagun eta denek gozatu zuten ordu bete inguruko ikuskizun paregabeaz. Laguntzaileak eta gauzak desagertarazi egin zituen herritarren aurrean eta ikusleen artean laguntzaileak ere hartu zituen hainbat trikimailu burutzeko garaian. Haurrak laguntzaile izan zituen zenbaitetan eta truko ikusgarriekin ohikoekin uztartu zituen usoa ere atera zuelarik. Ederki gozatu zuten haur zein helduek ikuskizunarekin.

4 KULTURA Kale ikuskizunak izango dira uztailean zehar

Uztaileko kultur agenda aurkeztu zuten udal ordezkariak joan den ostiralean. Hainbat ekintza prestatu dituzte hilabete honetarako. Aste honetan, esaterako, 'Divenire' hip-hop eta breakdance ikuskizunaz gozatu dute herritarrek ostiralean Okendon, arratsaldeko zortzietatik aurrera.



5 ELKARTASUNA Saharako hurrei harrera beroa egin zaie

Txokoak hasi dira eta herriko hurrek ederki gozatu ahal izango dute. Hauetan daude gurera uda pasatzera etorri diren haur sahararrak. Aurten zazpi dira Nazha, Mrabih, Abdalahi, Hilifa eta Saida iaz ere izan zirenak eta Mattu eta Whaba lehenengoz. Harrera berezia egin zitzaion.

**Uztailean
TXINTXARRI
astelehenetan
argitaratuko
da soilik.
Herriko
informazio
guztia
txintxarri.eus
atarian**

R.P.S. Nº 149/10 I.L.G.

Senñitu betaurreko gabe egotearen
askatasuna
2015eko bildumak
marka guztietan

Hilabeterako ukipen lenteak
DOAN
EDOZEIN GRADUAZIORENTZAT*
* progresiboak barne
www.multioplicasgipuzkoa.com

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

Zorion agurrak



Udane

Zorionak familiaren partetik gure txapel-dunari. Zortzi muxu potolo eta ondo pasa zure eguna.



Unax

10 dagoeneko!! Zorionak txapeldun guztion partetik!!



Enara

Etxeko printsesa... Asko maite zaitugu. Ondo pasa eta hola segi. Mila muxu familiaren partetik.



Alba

Zorionak Alba! 7 urte dituzu! Ederki ospatuko dugu. Asko maite zaitugu, bitxo!



Unax eta Garazi

Zorionak Unax eta Garazi. 9 muxu potolo aitatxo ta amatxoren partez!!!



Liher eta Jare

Zorionak bikote!!! Ondo pasa zuen egunean!!!



Iñigo

Zorionak Txintxarri eta Ttakuneko lankideen partetik!! Asteburuan ondo ospatu izana espero dugu!!



Eneko

Zorionak Ttakuneko lankideen partetik!! Ondo ospatu izana espero dugu!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Apartamentua alokatzen da Finestrat senaduan, Alacant. Uztaileko bigarren hamabostaldia eta irailetik aurrera. 667 73 14 56.
- Pineda (Salou ondoan), apartamentu bat alokatzen da, 4-6 pertsonantzako. Los Juncos urbanizazioan. (Haize egokituarekin eta Port Aventura ondoan) 605 70 88 17.

Lan-eskaria

- Garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zaintzen interna edo externa lan bila. 631 60 50 18.
- Emakumea eskaintzen da interna zein externa moduan lan egiteko. Erreferentziak ditu.

602 596 735.

- Emakumea eskaintzen da etxeak garbitu, pertsona adinduen edo ezinduen zaintza egin edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko. Papearak eta erreferentziak ditu. 648 90 67 82.
- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.
- Emakumea eskaintzen da orduka jende edadetua eta haurrak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. 620 528 053.

Bestelakoak

- Trasteleku bat behar da Oria aldean, Basaundi bailaran. 636 57 67 20.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Hugo Garrido Gonzalez, ekainaren 26an.
- Leysa Aroa Aguilera Saavedra, ekainaren 25ean.
- Unax Gomez De Sosa, ekainaren 12an.
- Eñaut Suberbiola Rodriguez, ekainaren 10ean.
- Julen Echeverria Raimova, ekainaren 5ean.



Heriotzak

- Maria Pilar Murua Artola, ekainaren 30ean, 86 urte zituela
- Jose Quintano Gutierrez, ekainaren 30ean, 75 urte zituela.
- Miguel Maria Mugica Gaztañaga, ekainaren 28an, 78 urte zituela.
- Candelas Gamarra Gamarra, ekainaren 27an, 87 urte zituela.
- Fulgencia Hernandez Gascon, ekainaren 25ean, 94 urte zituela.
- Clementina Rico Hernandez, ekainaren 22an, 74 urte zituela.
- Ramon Cendoya Garmendia, ekainaren 21an, 84 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Astelehena, 06 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549	Astelehena, 13 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteartea, 07 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567	Asteartea, 14 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteazkena, 08 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521	Asteazkena, 15 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 09 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652	Osteguna, 16 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Ostirala, 10 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151	Ostirala, 17 Gandarias-Urbe, l. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 11 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652	Larunbata, 18 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 12 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652	Igandea, 19 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuak	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFako Kultura eta
Euskara Departamendua

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maidar Segurola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informazioa:
Xabier Amadoz

EUSKARA

Begirale eta udako ikastaroetarako diru-laguntzak

Urriaren 31 arte egin daiteke eskaera

Udaleko Euskara Batzordeak 2015 urterako egin duen diru-laguntzen deialdiaren barruan, aisiako begirale eta zuzendari izateko eta unibertsitateetako udako euskarazko ikastaroetarako diru-laguntzak onetsi ditu eta 1.360,00 euro eta 400,00 euroekin hornitu ditu, hurrenez hurren.



Aisialdiko begirale eta zuzendari titulua eskuratu dutenek aukera dute eskatzeko.

TXINTXARRI

Udaleko euskara batzordeak hainbat laguntza lerro abiatu ditu begirale, zuzendari edota unibertsitateetako euskarazko udako ikastaroetan parte hartu duten herritarrentzat.

Asialdi begirale eta zuzendari

Aurreko irailaren 1a eta aurtengo abuztuaren 31 bitartean begirale ikastaroa hasi eta bukatu duten herritarrek, matrikularen % 50 arteko (250 euro gehieneko kopurura arte) beka jasotzeko aukera dute, baldin eta ikastaroa euskaraz eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izan bada eta alderdi teorikoa gainditu baldin badute.

Zuzendari ikastaroa egin dutenen artean, berriz, baldintzak berdinak dira eta bekaren gehieneko kopurua 150 eurokoa izango da.

Batzuen zein besteen kasuan, dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera. Beranduenez urriaren 31n egin beharko dira eskaerak.

Unibertsitateetako ikastaroak

Unibertsitateko ikasleek, langabetuek edo erretiratuak direnek, berriz, aurtengo udan unibertsitate bateko uda-ikastaroa euskaraz eginez gero, matrikularen %50 arte-

ko diru-laguntza jaso ahal izango dute.

Kasu honetan, beka soilik matrikulako gastuak estaliko ditu, egoitza, garraio eta antzerako gastuak ez ditu barne hartuko.

Kasu honetan ere, dagokion ikastaroa bukatu eta hurrengo hamabost egunen barruan aurkeztu beharko du interesatuak eskaera. Beranduenez urriaren 31n.

Eskaera-orriak Udalaren web-orrian zintzilikatuta daude dagoeneko edo euskaraz zerbitzura hurbilduta jaso ahal izango dira.

Informazio gehiago nahi izanez gero herritarrek 943 376 184 telefonora deitzen dezakete.

San Pedro jaiak baloratu ditu Udalak

Festak bukatu ostean, balorazioen ordua izan ohi da. Horixe bera egin du Alkateak San Pedro jaiekin. "Jai-giroa egon da presente etengabe egunotan. Ekintzetan gogotsu hartu dute parte herritarrek".

"Altua" izan da ekintzetako parte-hartzea Udalaren esanetan. Haren iritziz, horrek erakusten du herritarrek "oso barneratuta" dauzkatela jaiak. "Herritar askok kalean esan didate oso gustura daudela ekintzen mailarekin, bai tradizionalengatik eta baita berriagoak direnengatik ere", adierazi du Jesus Zaballos alkateak.

"Eragile eta lasarteoriatar askoren lan eskerarengatik izan ez balitz, San Pedro jaiak ez lirakeke arrakastatsuak izango. Haien ahalbidetzen dute egitarau zabal eta anitz



Gustura da Lasarte-Oriako Udala bukatu berri diren San Pedro jaiekin.

bat prestatzea urtero", nabarmendu du alkateak.

Biyak Bat erretiratuaren elkarteak eta Ostadar SKT omendu ditu Udalak aurtun. Alkateak aipatu du herriaren historiaren parte direla bi elkarte horiek, eta aitortza "merezitakoa" izan dela: "Lan asko egiten dute bi elkarteek

egunero, adinekoen bizi-kalitatea hobetzen batzuek eta herriko kirola sustatzen eta garatzen besteek".

Datorren urteko jaiak prestatzen hasi nahi du Udalak orain: "Ekintzak hobetu eta proposamen berriak sartu nahi ditugu; esaterako, bigantxak berreskuratzea".

Intza eta Santa Ana pala Txapelketako antolatzaileekin hitzarmenak



Hitzarmenak ostegunean sinatu ziren udalbatzar aretoan.

T.VALLÉS

Jesus Zaballos alkateak, eta Jose Felix Solanok, Intza Kirol Elkartearen izenean, Gipuzkoako Herrien Arteko Esku-pilotako Txapelketan Lasarte-Oriaren parte-hartze hitzarmena sinatu zuten. Lan-kidetzarako Udalak 2015. urtean gehienez ere 800 euroko diru-laguntza emango dio Intzari. Jokaturako kanporaketa bakoitzeko gehieneko laguntza 400 eurokoa izango delarik. Intzak bere aldetik, honako konpromisoak hartu ditu: Lasarte-Oriako taldeak Gipuzkoako herri arteko esku-pilota txapelketan parte hartzea bermatzea. Txapelketan parte hartuko duen herriko taldea osatuko duten kirolariak aukeratzea, betiere inolako diskriminaziorik egin gabe.

Taldea osatzen duten kirolariak modu egokian prestatzeko beharrezkoak diren entrenamenduak antolatzea, aipaturako txapelketan herria duintasunez ordezkatu dezaten. Txapelketan parte hartzeko beharrezkoa den kirol materialaren erosketara eta zaintzara antolatzea.

Udalaren Kirol Zerbitzuekin koordinatuz, kirol instalazioetan jokatu diren partiden egutegia prestatzea. Erantzukizun zibileko aseguru bat edukitzea ere eskatu zaie.

Bestalde, Xenki Astiazararekin, Santa Ana pala txapelketako batzorde antolatzaileko kidea, Santa Ana Pala Txapelketaren antolatari laguntza eta sostengua emateko hitzarmena sinatu zen.

Udalak gehienez ere 2.414,50 euroko diru-laguntza emango die antolatzaileei. Batzorde Antolatzaileak bere aldetik, Santa Ana Pala Txapelketa antolatu, txapelketan parte hartzeko aukera irekitzea, kirolariak modu egokian parte hartu dezaten beharrezkoak diren partidak antolatuz. Beharrezkoa den kirol materialaren erosketara, erabilerara eta zaintzara. Partiden egutegia prestatu eta erantzukizun zibileko aseguruak eduki behar.

Aldeak gustura ziren lanean jarraitzeko babes garrantzitsua dela azpimarratuz.

EAJk hartu du Euskara batzordea

Lasarte-Oriako EAJ-PNV taldeak hasi berria duen legealdian begira, hartutako erabakien berri eman nahi izan du ohar bidez "bereziki, maiatzaren 24ean EAJrengan euren konfidantza jarri zuten orori".

"Gaur gaurkoz, herrian lehentasunezkoak diren arazoak aurre egiteko lan egingo dugu, hala nola, bailarako garapen ekonomikoa sustatzea eta inguruko enpleguaren sorrera aktibatzea. Garapen ekonomikoarekin eta enpleguaren sustapenarekin batera, Kirola, Bakea eta Bizikidetzak, izango dira gure politikaren muinak".

Oposizioan lan egingo eta "gure politikak garatzen saiatuko garela talde politiko ezberdinekin unean uneko akordioetara iritsiz, uste baitugu ulermen maila ezberdinetara

heldu gaitzekela hainbat gaitetan talde ezberdinekin: PSE, Bildu, Lasarte-Oriak Ahal du edota PP".

Gobernu taldeak helarazitako Euskara Batzordearen buru izatearen eskaintza onartzea erabaki duela azaldu du EAJk, "aurreko legealdian hasitako Euskara proiektuarekin jarraitzeko helburua bermatzearen eta beti ere, Euskarako Batzordean bertan hartzen ditugun erabaki guztiak alkatetzak errespetatu egingo dituenaren baldintzapean".

"Erantzukizunarekin eta ilusioarekin hartzen dugu legealdi berria, ezberdinen arteko etengabeko hartu-eman bat izateko helburuarekin, eta minorian dagoela eta adostasuneetara iristeko derrigortuta dagoela jakitun den Gobernu baten aurrean".

Kulturaz blai uztailean

'La vida inesperada' filma emango dute ostegunean Okendo plazan, 22:00etan

Ostiralean ireki zuen Sun magoak uztailean herrian egingo diren kultur ekitaldien agenda. Oraindik beste hainbat egingo dira hilabete zehar: 'La vida inesperada' pelikula proiektatuko du Okendo zinema taldeak ostegun gaueko hamarretan; egun berean hasiko da Zurmailu zurlanketa taldearen egur-taila erakusketa, Antonio Mercero gunean. Ostiralean berriz, hip-hop eta breakdance erritmoez gozatuko dute herritarrek, 'Divenire' ikuskizunean. Kulturaz blai dago uztailean; Santa Ana parodiak emango dio amaiera Okendo plazan, hilaren 26an, 22:00etan.

TXINTXARRI

Adin tarte guztietako herritarren pentsatuz osatu dugu hilabete honetako kultur agenda; denen gustukoa izatea espero dugu, adierazi zuen Jesus Zaballos alkateak. Kultur eta Hezkuntza zinegotzi Maite Iglesias, Gazteria eta Festak saileko arduradun Txus Alonso eta Juantxi Ugarte eta Xabier Goitia kultur teknikariek ere hartu zuten parte ostiral eguerdiko aurkezpenean.

Egitarau zabala

Antzerkiak, dantza, filmak eta erakusketak. Lau horiek dira uztaileko egitarauko ardatzak. 'Kale antzerkia bultzatuz' egitasmoan murgilduta daude Lasarte-Oriako Udala eta Eusko Jaurlaritza, eta horren harira hiru ikuskizun antolatu dituzte, Maite Iglesiasek zehaztu zuenez. Sun magoaren ikuskizunaz gozatu zuten herritarrek ostiralean. Hilaren 16an berriz, gazte-

txoenentzako berbena moduko bat prestatuko du Eidabe enpresak, 'Sardina frexkue' izenekoa. Arratsaldeko zazpietan hasiko da, Okendo plazan. Eta azkenik, Malas Compañías taldeak 'Txatarra' antzerkia taularatu du 17an, 20:00etan. Ekitaldi hori ere Okendon izango da.

'Lasarte-Oria dantzan' proiektua ere sortu zuten Udalak eta Eusko Jaurlaritza. Horren barruan sartzen da uztailearen 10ean Okendon izango den 'Divenire' ikuskizuna, hip-hop eta breakdance estiloetako hainbat dantzarik oholzaratuko dutena.

Bien bitartean, Okendo zinema taldearekin elkarlanean, 'La vida inesperada' eta 'Lucia' pelikulak eskainiko ditu Udalak Okendon. Eguraldi txarra egingo balu, Elizatze plazara eramango dira bi proiektioak.

Erakusketei dagokionez, Zurmailu zurlanketa taldeak egur-erakusketa prestatu du



Ostiralean aurkeztu zuten udal ordezkariak uztaileko kultur eta jaien agenda.

uztailearen 9tik 19ra bitartean, Antonio Mercero gunean. Astelehenera ostiralera 19:00etatik 21:00etara zabalduko dute; 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara larunbatean; igandean berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etatik 20:00etara.

Santa Ana

Uztailearen 26an antzeztuko dute herritarrek Santa Anako parodia ospetsua, Okendon, gaueko hamarretan. Hori baino aste bete lehenago hasiko dira ekintzak, ordea: Santa Anako XXXI. Artisau azoka irekiko dute Okendon, uztailearen 19ko egunean zehar. Sendoki Kultur Elkarteari elkarlanean antolatu du azoka Lasarte-Oriako Udalak.

Guztira 50 bat artisau erakusketa berezi: Zurmailu zurlanketakoek Okendon bertan landuko dute egurra, Biyak Bat elkarteko zenbait kakorra-tzean ariko dira eta Paco Altuna herritarrek Okendo plazaren maketa bat jarriko du ikusgai. Luis Irizar izango da aurtengo sukaldari omendua.

Irakurgaien eskuorria

Kultur ekitaldiez gain, inguruko beste hainbat udalerritako liburutegirekin (Hernani, Astigarraga, Usurbil, Zarautz eta Andoaingoekin) elkarlanean landutako eskuorri bat aurkeztu zuen Kultur zinegotziak: 'Freskagarriak udal liburutegiak'. Adin-tarte guztientzako pertsonentzat

gomendagarriak izan daitezkeen liburu eta filmak bildu dituzte bertan.

Oria eta Basaundiko festak

Txus Alonsok eman zuen festetako ekintzen berri. Karmengo Amaren eguna ospatuko da Oria auzoan, 16an. 12:00etan hasiko da Meza Nagusia Karmengo kaperan, 18:00etan sorgin dantza auzoan barrena eta 20:00etan berriz Ibai Berriekin batera dantzatzeko aukera izango dute herritarrek. Horiek dira uztailearen 16rako ekintza batzuk.

Uztailearen 31n izango dira San Inazioaren ospakizunak; Zero Settek kontzertua eskainiko du Basaundi plazan uztailearen 31n, 19:30ean, besteak beste.

Santa Ana parodiak aktoreak behar ditu

Santa Ana parodia gure herriak duen ikuskizun bereziena da. Uztailearen 26an, Santa Ana eta San Joakin eguneko ospakizunei amaiera ematen die eta herrian edo gure egunerokotasunean eragin duten urteko gai garrantzitsuenei erreparatu egiten zaie umorea oinarri dela.

Herriak sortua eta herriak eginga ohitura bihurtu da Lasarte-Orian. Guztia gainbegiratzen Ttakun kultur elkar-tea badago ere, gidoia egitea herritar talde baten esku egoten da eta taula gainean ere herritarrek egon ohi dira aktore lanetan.

Aktore bila

Hau horrela izanik, herritarrei ekimen dibertigarri honetan

parte hartzeko deia luzatu nahi die antolakuntzak urtero legez.

Epaille, abokatu, akusatu, lekuko, Basajaun, jentil, aguzil... paper guztietarako jendea behar da, baita deabru edo suhiltzaile izateko ere.

Aktore izateko ez da beharrezko dohain berezirik edo esperientziarik izatea, ezta antzoki handietan lan egin izana ere. Gozatzeko gogoak eta lotsa galtzea besterik ez dira behar.

Interesa duten herritarrek Ttakuneko bulegoan, Gelto-kikalea 4 edo 943 37 14 48 zenbakira deituta eman dezakete izena uztailearen 13a baino lehen.

Entseguak

Aipatu legez, parodia uztaile-



Manuel Lekuona kultur etxean egingo dira Santa Ana Parodiako entseguak. Aktore lana egiteko herritarrek behar dira.

ren 26an igandea gaueko 22:30etik aurrera eskainiko da Okendo plazan.

Baina aurreko asteetan hau prestatzeko saio bereziak egingo dira.

Antolatzaileek aipatu digutenez, uztailearen 9an 20:00etan Arrieskalleta elkar-

tean aktore paperak banatuko dira. Entseguak berriz, uztailearen 14an asteartea hasiko dira. Honela, uztaileak 14 asteartea, asteaz-kena 15, osteguna 16, astelehena 20, asteartea 21, 22 asteazkena eta azkenik, osteguna 23 izango dira saioak.

Manuel Lekuona kultur etxean izango dira guztiak 18:30etik 20:30era.

Egunean bertan ere entsegu orokorra egingo da Manuel Lekuonan 16:00etatik aurrera. Ondoren, karakterizatu eta Udaberri elkartean afaria izango da.

Udan primeran gozatzeko prest

Udalak eta Udako Txokoetako lagunek saharar haurrei harrera egin zieten

Udako Txokoak hasi dira. Etxeko txiki eta gazteek milaka abentura biziko dituzte hilabete honetan. Itsasoa, Euskal Herriko jaiak edo Mundubira oinarri ekintza dibertigarriak egingo dituzte herrian, zein irteera ezberdinetan. Aurten gainera belaunaldi ezberdinen arteko harremana sustatuko da eta azken urteetan lez, saharar haurrak ere izango dira ekimen honetan parte hartzen.

Ur jolasak, jostakiroa, igerilekura irteerak, jaialdia, San Fermi... Udako Txokoetan ez dago aspertzeko astirik.

Uztailaren 1an hasi ziren Udako Txokoak eta nahiz eta txikienek negarren bat egin, udan gozatzeko prest daude 473 haur eta gaztetxo, baita begiraleak ere.

Programazioak

Udako Txokoetako arduradunek azaldu digutenez, adinaren arabera hiru programazio ezberdin dituzte.

HH3 eta HH4 mailako txikiak itsasoa murgilduko dira eta bertako pertsonaiak ezagutuko dituzte. Euskal Herriko Jaietan aditu bilakatuko dira HH5 eta LH2 maila arteko ertainak. Handienek, berriz, Mundubira egingo dute eta herrialde ezberdinetako kulturak landuko dituzte.

Aurten gainera, guztiek batera ekimen berezi bat

egingo dute, Batufesta. Honean belaunaldi ezberdinetako haurrak batu eta bata besteen arteko harremana sustatuko dute. Hala nola, gaztetxoek txikiei eskulanak egiten irakatsiko diete.

Eta azken festan ere guztiak batera egongo dira.

Irteerak

Honetaz gain, ertain eta handiek herritik kanpora irteerak egingo dituzte eta Azpeitia, Orio, Zarautz, Hernialde edo Gamarrako igerilekuetara joango dira.

Gaztetxoak gainera, bibak egingo dute ikaztegietan. Eta Txokoetako arduradunek aipatu digutenez, bertako lagunak ezagutzeko aukera ere izango dute, hainbat ekintza antolatu baitituzte bertan.

Txikiak, berriz, herriko parkeak ezagutu eta Txikiguayn goiz dibertigarria igaroko dute.



Udako Txokoak asteazkenean hasi ziren. Ostiralean begirale, haur eta gaztetxoek ederki gozatu zuten ur jolasetan.

Jaialdiak

Baina ez dute haiek bakarrik gozatzeko, Udako Txokoetan egindako lana ikusteko aukera ere izango dute senideek antolatu diren jaialdietan.

Uztailaren 17an Euskal Herriko jaietako giroa ekarriko dute ertainek herriko kaleetara. Aste bat berandago, Manuel Lekuona kultur etxean dantza bereziak aurkeztuko dituzte.

Uztailaren 29an, Okendo plazan itsasoko pertsonaia txikien dantzak ikusi ahalko dira.

Eta gazteek Mundubira

desfilea eta hamaiketako eroa izango dute.

Ongietorria

Bestalde, aurten ere, Oporrak bakean egitasmoa saharar haurrak Udako Txokoetan daude parte hartzen.

Zazpi dira gure artean dauden laguntxoak. Nazha, Mrabih, Abdalahi, Hilifa eta Saida dagoeneko gure artean izan ziren iaz eta lagunak egin zituzten Lasarte-Orian, baina birentzat esperientzia berria da. Hauek Mattu eta Whaba dira.

Milaka abentura biziko dituzte hemen eta horietako bat izan zen, ostegunean, Lasarte-Oriako Udalak eta Txokoetako lagunek egin zieten harrera ekitaldia.

Gazteleguan egin zen ongi etorriak bi zati izan zituen.

Lehenengoa, Jaizkibel plazan egin zen.

Udako Txokoetako haur eta gaztetxoek hiru dantza eskaini zizkieten Saharako haurrei. Agurra, txulalai eta ipurdi dantzaren pausoak trebezia handiz burutu zituzten.

Jarraian, haur sahararrak, harrera familiak, udal zinegotzi, alkatea, begirale eta Txokoetako gaztetxoek tal-

deak Gazteleguko areto nagusira sartu ziren.

Bertan Jesus Zaballos alkateak ongi etorria egin zien saharar haurrei eta harrera familiei eskerrik beroenak eman zizkien. Era berean, Udaleko oroigarriak banatu zizkien.

Ondoren, Porrotxek magia ikuskizuna eskaini zien gaztetxoek. Lehenik bere marrazki bat konpondu eta gero Pirritxen panpin bat, kamiseta bat, poster bat eta Saharako bandera kutxa batetik atera zituen.

Azkenik, areto guztia dantzan jarri zuen 'Pausoka pausoka', abestiarekin.

Abestia amaitzean, Udako Txokoetako haurrek ere haien oroigarria eman zieten sahararrei.

Bi hilabete osatzeko

Oporrak bakean egitasmoaren bidez, errefuxiatu kanpamentuetan bizi diren haurrak beste herrialdeetara joaten dira bi hilabetez. Izan ere, hauetan 50 gradura iristen baitira.

Egonaldia mediku azterketa orokorrak egiteko baliatzen da. Gainera, haurrek elikadura ona dute eta fisikoki ere osatzen dira.



Oporrak bakean egitasmoari esker, zazpi haur saharar daude gure artean. Ostegunean, harrera beroa izan zuten.

MAiTE

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu



Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

ARETO FUTBOLA.-

Txindokik 3-1 irabazi zuen Mossoren oroimenezkoa

Txindoki eta Trumoi taldeek jokatu zuten larunbateko finala kiroldegian

XXIX. Mossoren oroimenezkoaren finala jokatu zen larunbatean Kiroldegian. Hamar talde aritu ziren borrokan baina azkenean finala Txindokik irabazi zuen 3-1eko emaitza lortuta Trumoiaren aurka. 15 minutuko bi zatiko partiduak jokatu zituzten taldeek ostiraletik final handira zein iritsiko erabakitzeko.

TXINTXARRI

Partida lehiatua izan zen larunbatean kiroldegian jokatuak Mossoren oroimenezkoaren finala. Trumoi aurreratu zen markagailuan lehenengo zatian, Asier Sanchezen golarekin.

Bigarren zatian berriz, Txindokik gogor borrokatu zuen eta Joseba Mugak sartu zuen berdinketako gola.

Jokin Manriquek aurreratu zuen Txindoki jarraian eta partidaren amaierarako minutu eskas falta zela, Javi Gomezek sartu zuen Txindokirentzat hirugarrena.

Horrela izanda, 3-1eko markagailuarekin amaitu zen Mossoren oroimenezkoaren 29. edizioa.

Ostiraletik partidak

Insausti eta Ilargi tabernekek ireki zuten Michelingo partidaren zerranda ostiraletan. Honetan Ilargi aurreratu zuen 2-4 emaitzarekin. Kiroldegian berriz, Viña del Mar taberna Trumoiaren aurka neurru zituenez indarrak eta Viñak irabazi zuen 4-1. Horretaz gain, beste bi norgehiagoka jokatu ziren kiroldegian, Buenetxea eta Indaux-en artekoa 4-2ko emaitzarekin amaitu zena eta Txindoki eta Urdanetaren artekoa, 4-2ko garaipena emanaz txapeldunei.

Michelinen berriz, areto futboleko txapelketaren irabazle El Punto tabernak Txoko izan zuen aurrez aurre. El Puntok erraz irabazi zuen 5-1eko emaitza lortuz.



Txindoki eta Trumoi taldeetako jokalariek Miren Urcolarekin sari banaketa egin ostean.

Hamar talde hartu dute parte aurtengo edizioan. Hori dela eta, kaleratuak izango ziren bost taldeetatik bat aritu zen final-laurdenetan zozketa bidez erabakita.

Hiru partida jokatu zituzten guztira bi Michelinen eta udal kiroldegian bestea. Trumoi-Ilargiren artekoa Trumoi

irabazi zuen 2-1; El Punto eta Viñaren artekoan, Viñarentzat izan zen garaipena 1-3.

Kanporatuak izan ziren hiru taldeetako bat sailkatu zen finalerdietarako, zozketaz. Horrela jokatu ziren, Trumoi-Viña eta Txindoki-El punto. 4-3 eta 3-1eko emaitzei esker, final handian

aurrez aurre izan ziren Trumoi eta Txindoki.

Txindokik hartu zuen Izkiña tabernaren lekukoa, aurtan ez jokatzeko erabaki baitu iazko txapeldunak. Miren Urcola Joxean Mossoren alargunak, eman zien kopa irabazleei eta denek atera zuten familia argazkia bukaeran.

IGERIKETA.-

Hiru urre Ibarbururentzat Euskadiko txapelketan

Buruntzaldea IKTko igerilari junior eta absolutuek Gasteizko Mendizorrozan egin zuten igeri Euskadiko txapelketan, duela bi asteburu. Hainbat domina ekarri zituzten bueltan etxera, eta horietako gehienak Iñigo Ibarburuk eskuratu zituen: 3 urrezko eta brontzezko bat.

Batxilergoko azterketak zirela-eta, Ibarburuk ez zuen gehiegi entrenatzerik izan. Hala ere, hainbat domina ekarri ditu bueltan etxera. 100 tximeletako proban izan

zituenez sentazio onenak: "Lehenengo 50 metroen ostean, indartsu ikusi nintzen eta horrela egin nion aurre probaren bigarren zatian; irabaztea lortu nuen azkenean".

Etzi hasiko da Espainiako txapelketa, baina herriko igerilariak erabaki du Bartzelonara ez joatea: "Unibertsitatera sartzeko hautaprobak ari naiz prestatzen eta Bartzelonara ez joatea erabaki dut". Igerilekuan bezain fin aritzen bada apunte eta liburu artean, ez zaio batere gaizki joango.



Hiru urrezko eta brontzezko domina bat ekarri zituen Ibarburuk Gasteiztik.

PIRAGUISMOA.-

Maialen Chourraut txapeldun Krakovian

Saso betean ekin dio denboraldiari herriko piraguitak. Europako txapeldun izan zen orain dela aste batzuk Alemanian, eta Polonia konkistatu du orain, Krakoviako Munduko Kopako proba irabazi baitu K1 modalitatean.

Albistea jaso zuenean, San Pedro Jaiak ospatzen ari zen herria. Ekainaren 28an, igandean jokatu zuen Chourrautek Munduko Kopako probaren finala, ostiral horretako sailkapen fasean zortzigarren postuan geratu ostean, penalizazio bat zela medio.

Igandeko finalean argi utzi zuen Maialenek zortzigarren postu hori ez zela erreal, 90 segundo eta 91 ehuneko marka eginez irabazi zuelako Krakoviako Munduko Kopako proba. Herritarrak baino ia bi segundo gehiago behar izan zituen Corinna Kuhnle austriarrak ibilbidea osatzeko; zilarrezko dominarekin konformatu behar izan zuen. Podiumeko hirugarren kajoira Ricarda Funk alemaniarra igo



Bikain ekin dio denboraldiari Maialen Chourraut piraguitak.

zen; Chourrauten markatik hiru segundora geratu zen. Europako txapelketan bigarren izan zen Funk.

Atzo berriz, Litovski, Txekiar Errepublikan Munduko Kopako hirugarren proba izan zuen Maialenek eta honetan, zilarrezko domina eskuratu zuen. Aste gogorra pasa ondoren, hiru onenen artean sailkatzea saria izan zen herritarrarentzat.

Londresera irailean

Gero eta gertuago daude Rio 2016ko Olinpiar Jokoak. Hori baino lehenago ordea, zenbait zita garrantzitsu dauzka herritarrak egutegian gorritz markatuta. Esaterako, Olinpiar Jokoetarako txartela eskuratzeko erabakiorra izango den Munduko Txapelketan lehiatzera joango da Londresera. Irailaren 16tik 20ra jokatuko da txapelketa hori.

Agenda

Osteguna, 22:00etan, Okendo plaza



Zinea kalean

Jorge Torregrosa zuzendariaren "La vida inesperada" filma ikusi ahal izango da uztaileko antolatutako kale ekintzen egitarauaren baitan. Juanito New Yorkera joandako aktore baten istorioa kontatzen da. Han ez du esperotako arrakasta lortzen eta ahal duen lanetan aritzen da. Bere lehengusu arrakastatsuen bisitak agerian utziko du bi gizonen errealtatea. Doan izango da eta eguraldi txarra egitekotan, Elizatze plazan egingo litzateke. Gazteleraz.

Karmengo Amaren eguna ospatuko da Oria auzoan. 12:00etan hasiko da Meza Nagusia Karmengo kaperan, 18:00etan sorgin dantza auzoan barrena eta 20:00etan berriz dantza egiteko unea izango da Ibai Berriak-en eskutik, Brunet parkean.

OKENDO PLAZA

Igandea 26, 22:00etan

Santa Ana parodia antzeztuko dute herritarrek. Egun osoan zehar hainbat ekintza burutuko dira ohituraru jarraikiz.

Usurbil

Poesia

MIKEL LABOA PLAZAN

Asteartea, 20:30ean

Afari Beganoa eta MMatarrak, Okene Abrego eta Mariano Hurtadokosatutako bikotearen poesia errezitaldi musikatua.

Lasarte-Oria

Zinea

OKENDO PLAZA

Osteguna 23, 22:00etan

"Lucy" filma eskainiko da. Scarlett Johansson eta Morgan Freeman aktoreak protagonista dituen thriller-ra da. Droga garraiatzea behartuta aurkitzen den emakumearen istorioa kontatzen da. Eguraldi txarra egitekotan Elizatze plazan egingo da proiektzioa. Gazteleraz.

Eusko Jaurlaritzak sustatutako Lasarte-Oria Dantzan ekimeneko saioa izango da. Doan.



Antzerkia

OKENDO PLAZA

Osteguna 16, 19:00etan

Eidabe K.E-ren "Sardina Freskoa" haurrentzako jai-berbena. Eusko Jaurlaritzako kale antzerkia bultzatuz ekimeneko saioa izango da.

Ostirala 17, 20:00etan

Malas Compañías taldearen "Txatarra" lanaz gozatu ahal izango da. Hau ere Eusko Jaurlaritzako kale antzerkia bultzatuz ekimeneko saioa izango da.

Azoka

OKENDO PLAZA

Igandea 19, egun osoa

Urtero legez, XXXI. Santa Ana Artisau azoka ospatuko da. Sendoki Kultur Batzordeak antolatutako urteroko hitzordua da eta bertan izango dira herriko artisauak euren lanak erakusten.

Jaiak

ORIA

Osteguna 16, 12:00etan

Musika

MIKEL LABOA PLAZAN

Asteartea, 20:30ean

Mara bakarleriaren kontzertua. Igor Arzuaga, ezkututzen da proiektu honen atzean. Orain arte bi disko kaleratu ditu bere izenpean ('Argi izpi bat' eta 'Smog', biak Gaztelupeko Hotsak-ekin) eta beste bi ('Lagun eroa' eta 'Unibertsoa gu') Mara izenpean, bere kantuak interpretatzeko Arzuagak sortutako 'per-tsonaia' edo alter egoa. Poesiak musikak adina garrantzia du eta pop, rock eta folk doinuekin batera, kabareteko musikaren edota Frantziako kantagintzaren oihartzunak biltzen ditu. Doan.

Herritarren txokoa

Alboka Txikin parte hartu

Hurrengo ikasturtean Alboka Txiki Abesbatza (6-14 urte) parte hartu nahi duenek idatzi dezakete info@albokaabesbatza.com helbidera eta apuntatzeko egunetan abisatuko zaie izena modu ofizialean emateko.

Oriatarren bazkaria

Karmengo Amaren egunean, uztailearen 16an, Oriatarren bazkaria antolatu dute El Jardin jatetxean. Aurten Karmengo Amaren kaperaren 75. urteurrena ospatuko dute eta On Ramon Uribetxeberria apaizari omenaldi txikia egingo zaio urte hauetan egindako zerbitzuarengatik. Bazkariak gozatu nahi duten herritarrek jate-txean bertan eman behar dute izena. Menua 30 euro dira eta haurrentzako bi menu daude, bata 8 eurokoa eta bestea 12 eurokoa.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858
txintzarri@txintzarri.info

Eskutitza

Telelaguntza zerbitzuaren erabiltzaile berriak kaptatzeko telefonozko kanpainarik ez dago

Azken asteotan, Euskadiko Autonomia Erkidegoko osoko udalerritan, partikularren etxebizitzetan deiak jasotzen ari dira. Antza denez, deitzaileek telelaguntza-zerbitzuak saldu nahi dizkiete. Adineko pertsoneri egiten zaizkie deiak, eta administrazioarekin harremanetan jartzen dira haiek: zenbaitetan, Eusko Jaurlaritzako telelaguntza-zerbitzu publiko erabiltzaileak direlako; bestetan, larritu egiten direlako, senideren batek ezezagun batekin hitzordu bat adostu dutela jabetzean. Gaiaren inguruan galdetzen duten guztiei esan diegun bezala, Eusko Jaurlaritzatik ez gara ari egiten telefonozko kanpainarik, eta ez dugu egingo ere.

Euskadiko herritarren eskubide bat da telelaguntza publikoa, eta dagokion administrazio-prozeduraren bitartez gauzatu daiteke

eskubide hori: hala norberaren ekimenez nola gizarte- nahiz osasun zerbitzuko profesionalen gomen-dioz.

Bakarrrik bizi diren 75 urtetik gorako laguntzako, eta gizarte-zerbitzuek aitortutako mendekotasun zein zaurgarritasun egoeran bizi diren 65 urtetik gorakoentzako zerbitzu bat da. Halaber, ezintasun intelektuala, fisikoa edo sensoriala izanik mendekotasuna edozein gradutan onartua duten pertsonentzat eta diagnostikatutako gaixotasun mentala izanik onartutako mendekotasun-egoera edo gizarte-bazterkeriako arriskua dutenentzat.

Telelaguntzaren prezio publikoa 4 euro/hileko da. Norberaren bizibaldintzak hala justifikatzen badute, ordaintzeko salbuespena onartzen da.

Telelaguntza pribatua ere eskaintzen da, telelaguntza

publikoaren ordezkio aukera gisa, eta eskuragarri dago, herritarrek beren baldintzetara hobe egokitzen den aukera hauta dezaten.

Telelaguntzako zerbitzu publikoa behar duten pertsonak argibide gehiago jaso ditzakete, bai herritarrei erantzuteko telefonon (012) eta baita web-orri honetan ere:

www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus

Emilio Sola Ballojera
Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaria

Herrien arteko senidetzea kantuararen bitartez

Xumelako lagunekin izan ziren larunbatean Gironako Re Mi Bandeko kideak

lazko bisitari erantzunez, Gironako Lladó herriko lagunak izan ziren arteburuan gurean. Xumelak iaz Zarauzko Montetxio eta Hondarribiko Olagarro abesbatzetako kideekin izan zen Katalunian eta aurtengoan eurek bueltatu dute bisita. Bi abesbatzek emanaldi polita eskaini zuten Okendon larunbatean euskal kanta eta dantzak katalanekin uztartuz. Emanaldia entzutera gerturatutako herritarrak dantzan jarri zituzten bi taldeek. Giro ezinhobean joan zen bi taldeen arteko topaketa.

Iaz herriko Xumela koruak Euskal Herriko mugak gainditu eta Zarauzko Montetxio koruko zein Hondarribiko Olagarro koruko kideekin batera Kataluniara joan zen.

Girona aldean lau egun igaro zituzten eta kanta artean, herri ezberdinak bisitatu eta lagun berriak egin zituzten.

Herrira oroigarri berezi bat ere ekarri zuten Xumelako kideek. Olibondo bat opari jaso zuten han eta herrira ekartzeko gurean toki aproposa bilatu zioten. Gure Esku Dago taldearen ekimenean, olibondo hau Dorre parkea eta Askatasunaren plazaren arteko eremu batean landatu zuten maitasunez.

Aurten, Euskal Herriko koruek luzatutako gonbidapenari erantzunez, gure artean izan dira asteburuan Lladó herriko Re Mi Band koraleko lagunak.

Larunbatean, goizean goiz Pasaiako Albaola museora egin zuten txangoa eta 13:00etan Zarauzko musika plazan kantaldia partekatu zuten Kataluniako eta Euskal Herriko koruek.

Herrira bisita

Elkarrekin bazkaldu ondoren, herriaren bisita gidatua egin zuten Zarautzen.

Arratsaldeko 19:30ean iritsi ziren herrira Xumelako lagunak gidaritzapean.

Okendo plazan, Xumelak eta Lladó-ko Re Mi Band koruak bat egin zuten eta emanaldi berezi polita eskaini zuten.

Xumelako Joxe Mari Agirretzek egin zituen aurkezle lanak eta Lladóko lagunak harrera egin zuten. Lladóko alkateak ere hitz batzuk esan zituen. Besteak beste, katalanez hasitako mintzaldian, jasotako harrera beroa eskertu eta euskal kultura gertutik ezagutzeko aukera politaz hitz egin zuten.

Xumelako lagunei, Lladón euren etxea dutela ere esan zien beraz, nahi duten guztietan ongiatorriak izango direla aipatuz.

Kanta eta dantzak

Xumela eta Olagarro abesbatzako kideek 'Goazen lagun maitea' kanta eskaini zieten katalanei herritar talde batek hauei agurra dantzatu ostean. Katalanek jarraian beste abesti bat eskaini zuten eta bukatzeko 'Txoriak Txori' kanta denek batera eskaini zuten gogotsu, Celia, katalanen zuzendariak bi abesbatzetako kideak gidatuta.

Ttakunek topaketa honen antolakuntzan lagundu zuen eta elkartetik sustatzen den herriko plaza dantza taldeak parte hartu zuen ekitaldixuan.

Plazan bildutakoak dantzan jarri zituzten lagun arteko festa giro ederrean. Taldeek Sardana eta hainbat euskal dantza egitera gonbidatu zituzten bertaratutako herritarrak.

Amaitzeko, eta katalanen eskaerari erantzunez Dabid Egizabalek gidatuta, arin-arina eta fandangoa ere dantzatzera animatu ziren.

Euri arriskua egon arren, ez ziren bisitariak ezta bertakoak kikildu eta aurrera egin zuten topaketarekin.

Bukatzeko, Okendon bertan elkarrekin mokadua jan eta topa eginez hurrengo bat arte agurtu zuten elkar.

Guztira 100 bat lagun bildu ziren larunbateko ekitaldi berezian. 50 bat kide izan ziren Gironatik etorritakoak eta beste hainbeste herriko korukoak.

Denentzat topaketa hau, Katalunian bizitakoa bezala, esperientzia aberasgarria izan dela aipatzen zuen Agirretzek.

Bi kulturen arteko hurbileko ezagutza eta laguntasun harreman berriak sustatzeko.



Re Mi Bandeko kideek bi kanta eskaini zituzten Okendon, bigarrena Xumelako lagunekin batera.



Sardana erakutsi zieten herritarrei katalanek eta jarraian euskal dantzak gidatu zituen Dabid Egizabalek.



Dantza saioa bukatuta, afari-merienda egin zuten elkarrekin lagun giroan.

